

ALKATETZAREN EBAZPENA RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

(Espedientea/Expediente:
2020SUHA0017)

Gaia: Irungo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan ekonomia indarberritzeko laguntzak

Egitateak

Alkatetzaren 2020ko irailaren 29ko 912 zenbakiko ebazpenaren bidez, Irungo merkataritza eta ostalaritza sektoreetan tokiko ekonomia indarberritzeko laguntzen deialdia eta oinarriak onartu ziren. Deialdia 192 zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2020ko urriaren 7an.

Alarma egoeraren adierazpenaren eremuan egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko osasun publikoko prebentzio neurriak hartzeko lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretua aldatzeko lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak "ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera" ezartzen du, "hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako beste ostatu batzuetako jantokietan izan ezik. Etxez etxeko otorduak prestatu eta zerbitzatu ahal izango dira, edo bertan jasotzeko alde aurretik hitzordua eskatuta, 21:00ak arte".

Eskabideak aurkezteko fasean dago deialdia, 2020ko abenduaren 31ra bitartean.

En relación a las ayudas a la reactivación económica local en los sectores del comercio y la hostelería de Irun.

Resultando los siguientes hechos:

Que por resolución de Alcaldía nº 912, de fecha 29 de septiembre de 2020, se aprobó la convocatoria y las bases de las ayudas a la reactivación económica local en los sectores del comercio y la hostelería de Irun. Dicha convocatoria se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 192, del 07 de octubre de 2020.

Que por Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, del Lehendakari, de modificación del Decreto 36/2020, de 26 de octubre, por el que se determinan medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, se determina el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración, con excepción de los comedores de hoteles y otros alojamientos para servicio de sus clientes alojados. Únicamente se podrá preparar y servir comidas a domicilio o recogida con cita previa hasta las 21:00 horas.

Que la convocatoria se encuentra en fase de presentación de solicitudes hasta el 31 de

diciembre de 2020.

Argudioak

Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak "ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera" ezarri zuenez eta Alkatetzaren 2020ko azaroaren 19ko 1.628 zenbakiko Ebazpenaren bidez bide publikoan terrazak eta mahai hankabakarrak jartzea arautzeko udal ordenantza interpretatzeko jarraibidea onartu eta terrazak eta mahai hankabakarrak aparkatzeko lekuetan jartzea baimendu zenez, besteak beste, ostalaritza sektoreko establezimendu gehiagok egingo dituzte inbertsioak establezimenduak eurak eta lan egiteko moduak COVID-19aren ondorioak arintzeko moduan egokitzeko.

Zer garaitan gauden eta inbertsio horiek egiteko zenbat denbora behar den kontuan izanik, beharrezkoa irizten zaio oinarriak aldatzeari, eskabideak aurkezteko epea eta gastuak diruz laguntzeko modukotzat hartuak izateko epea luzatzeko.

Epedientea osatzen duen dokumentazioa **ikusita**, zera

EBATZI DUT:

1. Oinarrien 7. atala (diruz lagundu daitezkeen gastuei buruzkoa) ALDATZEA.

Honela dio gaur egun:

"Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira 2020ko martxoaren 14tik 2020ko azaroaren 30era bitartean egindakoak, ondoren adierazten direnak".

Considerando los siguientes argumentos:

Que el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración, determinada por el Decreto 38/2020 de 6 de noviembre del lehendakari, y la Resolución de Alcaldía nº 1628, del 19 de noviembre de 2020, mediante la cual se aprueba la instrucción interpretativa de la ordenanza municipal reguladora de la instalación de terrazas y veladores en la vía pública, permitiendo la instalación de las mismas en zonas de estacionamiento, entre otros, va llevar a nuevos establecimientos del sector hostelero a la realización de inversiones destinadas a la adecuación de sus establecimientos y de las formas de trabajo al objeto de minimizar el impacto del COVID-19.

Que dadas las fechas en las que nos encontramos y los tiempos necesarios para la realización de dichas inversiones, se considera necesario modificar las bases para ampliar el plazo de presentación de solicitudes, así como el plazo establecido para que un gasto se considere subvencionable

A la vista de la documentación obrante en el expediente:

HE RESUELTO

1º.- MODIFICAR el apartado 7 de las bases, titulado gastos subvencionables:

Donde dice:

"Se consideran gastos subvencionables los que se señalan a continuación en los que se haya incurrido entre el 14 de marzo de 2020 y el 30 de noviembre de 2020."

Honela esan behar du:

“Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira jarraian aipatzen direnak, 2020ko martxoaren 14tik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean egindakoak badira betiere”.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko urtarrilaren 31raino luzatzea.

3. Aldaketa hau Udalaren webgunean, Dirulaguntzen Espainiako Datu Basean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. eta 20. artikuluekin bat etorriz.

4.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, hilabetean erabakia jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da erabakia, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean erabakia jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahalko da.

Irunen, ebazpen hau sinatzen den egunean.

Debe decir:

"Se consideran gastos subvencionables los que se señalan a continuación en los que se haya incurrido entre el 14 de marzo de 2020 y el 31 de enero de 2020."

2-º Ampliar el plazo para presentar solicitudes hasta el 31 de enero de 2021

3º.-Publicar la presente modificación en la página web municipal y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de acuerdo con los artículos 18 y 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

4º.- La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irun, a fecha de firma de la resolución.